



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara



donostia
kultura

DONOSTIA
ANTZERKI
SARIA

2023an DONOSTIA ANTZERKI SARIKO EPAIMAHAI IZATEKO DEIALDIA ZABALDU DA

www.donostiaeuskaraz.eus webgunean izen-ematea egin ahal izango da abenduaren 22ra bitartean

Donostia Antzerki Saria euskarazko antzerki profesionala bultzatzeko eta indartzeko sortutako saria da. Urtero, Antzerkiaren Nazioarteko Egunean antolatzen den ekitaldian, Donostian aurreko urtean euskaraz helduentzako eskaini den antzezlan onenari ematen zaio saria. Irabazlea erabakitzea epaimahaiaren esku geratzen da. Epaimahaia publikoaren 2 ordezkarik eta zortzi adituek osatzen dute. Publikoaren ordezkarria izateko, www.donostiaeuskaraz.eus webgunean izena eman behar da abenduaren 22ra bitartean.

Izena eman dutenen artean bi pertsona aukeratuko dira abenduaren 23an egingo den zozketa bidez. Deialdian parte hartu ahal izateko, hainbat baldintza bete behar dira:

- 2023/01/01erako 18 urte beteta izatea.
- Donostiarra izatea.
- Euskara jakitea.
- Antzerkia gustukoa izatea.
- Epaimahaikideek ez dute inolako partaidetzarik edota harreman zuzenik izango sarian parte hartuko duten ikuskizunekin edota konpainiekin.

Epaimahaikideek Donostia Kulturak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako XXIV. Donostia Antzerki Sariko antzezlanak ikusi beharko dituzte 2023an zehar (15 bat antzezlan) eta bakoitzaren balorazioa egin. 2024ko urtearen hasieran gainerako epaimahaikidekin elkartu eta adostu beharko dute zein izango den lan irabazlea.

Epaimahaikide izateak ere badu saria, 2023an ez ezik, 2024an ere Donostia Antzerki Saria dela eta, hirian eskaintzen diren helduentzako euskarazko antzezlan guztietarako bi sarrera jasoko baitituzte.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua
Konstituzio plaza, 2 / Tel 943 483750
www.donostiaeuskaraz.eus



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara



donostia
kultura

DONOSTIA
ANTZERKI
SARIA

ABIERTA LA CONVOCATORIA PARA SER JURADO DEL DONOSTIA ANTZERKI SARIA EN 2023

La inscripción podrá realizarse hasta el 22 de diciembre en la página web www.donostiaeuskaraz.eus

Donostia Antzerki Saria es un premio creado para fomentar y fortalecer el teatro profesional en euskera. Cada año, el Día Internacional del Teatro, se premia la mejor obra para personas adultas en euskara interpretada el año anterior en Donostia/ San Sebastián. De ello se encarga un jurado formado por 8 personas expertas y dos miembros que representan al público. Estos dos últimos se eligen por sorteo, y para participar en el mismo, la inscripción está abierta hasta el 22 de diciembre en la web www.donostiaeuskaraz.eus.

Entre las personas apuntadas se realizará un sorteo el 23 de diciembre donde saldrán elegidos los dos representantes del público que serán miembros del jurado. Para poder tomar parte en la convocatoria, hay que cumplir varios requisitos:

- Tener cumplidos 18 años para el 01/01/2023
- Ser donostiarra.
- Saber euskera.
- Ser aficionada o aficionado al teatro.
- No tener ningún tipo de relación ni colaboración con ninguno de los espectáculos ni con las compañías que tomarán parte en el citado premio.

Los miembros del jurado tendrán que ver las obras de teatro que participen en el XXIV Donostia Antzerki Saria (en torno a 15 obras) a lo largo de 2023, organizado por Donostia Kultura y el Servicio de Euskera del Ayuntamiento. Los miembros del jurado tendrán que ver todas las obras representadas y hacer una valoración de cada una de ellas. A principios de 2024 se reunirán con el resto de miembros del jurado para decidir la obra ganadora.

Ser miembro del jurado tiene premio, ya que además de ver las obras de 2023 gratuitamente, recibirán dos entradas para las obras en euskara para personas adultas que se representen dentro del Donostia Antzerki Saria en la ciudad en 2024.

MÁS INFORMACIÓN:

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua
Konstituzio plaza, 2
943 483750

www.donostiaeuskaraz.eus